

JOAKIN LIZARRAGA, ELKANOKOA,  
"KOPLAK"

*Iruñea, 1983-VI-24*

*Juan Apezetxea*

Dakizuen bezala, orain dela hamar bat urteaz geroztik Elkanoko Lizarragari lotua nabil, beraren bizitza, idazlanak eta literatur nortasuna ezaguterazteko asmoarekin. Lehenbizi bere bizitzaren gorabeherak ikertu nituen eta horri buruz liburu bat prestatu eta argitaratu. Berehala Cateximaren lehenbiziko zatia argitaratu nuen, kristau fedeari dagokiona alegia, edo egileak dioen bezala, "*Fede christioaren gáin*". Beste hiru zati gelditzen dira zinzilik argitaratu beharrean: bigarrena Mandamentuei buruz, hirugarrena Sakramentuei buruz eta azkenekoa Otoitzari buruz.

Lan honetan irauteko asmoa nuen nik, eta bigarren zatia prestatzen ere hasia nintzen. Baita ere Gasteizko Teologi-Fakultateko "Scriptorium Victoriense" delako aldizkarian laugarren zatia, Otoitzari dagokiona, argitaratzen hasia naiz aurtten. Hala ere, egia esan, eginkizun honen harian atzeratu egin naiz, Lizarraga beraren beste idazlan batek aurrea hartu diolako.

Izan ere orain dela lau bat urte bere *Koplak* aztertzen hasi nintzen, Satrustegi adiskideak eginkizun honetara bideratuta. Dakizuenez, Lizarragak alor honetan egin zuen lana harrigarria da. Hamahiru mila eta bostehun bat bertso-lerro utzi dizkigu bere eskuiskribuetan barreiatuak eta zazpiko edo lauko koplatan eratuak. Materiale ugari hau Nafarroako Artxibu Generalean gordetzen da orain gehienbat eta hiru eskuiskribuetan batez ere bildu zituen egileak berak. Eduki aldetik, kristau mezuari dagozkion gaiak erabiltzen ditu beti Lizarragak kopletan, bere gainerako obra guztian bezala.

Nire lehenbiziko lana materiale guztia biltzea eta ordenatzea izan da. Egileari jarraituz, lau gai nagusitan sailkatu dut guztia. Hauek dira gaiak:

Ama Birginaren bizitza eta debozioa;  
Jesusen bizitza edo historia jaiotzetik hasi eta berbiztu arte;  
Eukaristi misterioa;  
eta azkenik, kristau doktrinaren egiak.

Gai hauen herrenkadari jarraituz, lau ataletan sailkatzen dut obra guztia; eta atal bakoitzak egileak berak ipinitako titulua darama.

Lehenbiziko titulua da:

*“Ama Virginaren gloriaġan”*.

Bigarrena: *“Cembait copla Jesus onaren honra ta amoretan”*.

Hirugarrena: *“Copla-guisa batzuc gozatzeco Sacramentu Sanduaren laudarioetan”*.

Laugarrena: *“Copla-guisa batzuc Doctrina Christioaren”*.

Jatorrizko sailketa hau errespetatuz, askaturik gelditzen ziren kopla batzuc aipatutako lau atalei erantsi dizkiet gehigarri bezala. Horretarako gaien elkarren arteko egokitasuna erabili dut erizpidetzat edo kriterio bezala.

Lau atal horien berri eman nahi nizueke orain laburki.

## 1. Ama Virginaren gloriaġan

Ama Birginari dagokiona da lehenbiziko atala titulu honekin: *Ama Virginaren gloriaġan*. Bi zati ditu: bata Maria Birginaren bizitzari buruz, eta bestea, berarenganako deboziari buruz. Lehenbizikoak lauhun bat kopla osatzen ditu eta, bigarrenak ehun eta bat. Atal honi erantsi dizkiot Ama Birginari buruz askaturik azaltzen diren beste kopla batzuc. Horrela, kopla bakoitzak zazpi bertso-lerro dituelarik, atal honek hiru mila eta seihun eta hoge eta hamazazpi bertso-lerro ditu denetara.

Metrika edo neurkera aldetik, “Sacris solemnġis” latinezko goratzarrea dute eredu. Halaxe adierazten du egileak berak hitz hauekin: “Sacris solemnġis” hymnoaren guisara. Beraz zazpi bertso-lerroko estrofak dira; sei lehenbizikoak sei silabakoak; eta azkenekoa, zortzikoa. Pareak beren artean eta pareak ez direnek ere, beren artean errimatzen dute. Gainerakoan kopla guztiak ederki kanta litezke “Sacris solemnġis” goratzarrearen doinu ezagunekoan.

## 2. Cembait copla Jesus onaren honra ta amoretan

Bigarren atala Jesusen bizitzari edo historiari dagokiona da, eta egileak ematen dion titulua hau da: *Cembait copla Jesus onaren honra ta amoretan*. Atal hau da guztietan luzerena eta Lizarraga berak bi zatitan banatzen du. Lehenbizikoak bostehun eta berrogei eta hamaika estrofa ditu eta bigarrenak ehun eta hirurogei eta bi. Bigarren zati honek, Jesusek kristauei egiten dizkien mesedeak deskribatzen ditu: *Jaunaren favore zembaiten oroipena*, adierazten du egileak azp tituluan. Bi zati hauek bost bat mila bertso-lerro dituzte denetara eta metrika aldetik, lehenbiziko atalekoak bezala, “Sacris solemnġis” goratzarrearen gisara eratuak daude, zazpi bertso-lerroko estrofatan, alegia.

### 3. Copla-guisa batzuc Sacramentu Sanduaren laudarioetan

Hirugarren atala Eukaristi gaiari dagokiona da eta egileak berak ezarritako titulu hau darama: *Copla-guisa batzuc gozatzeo Sacramentu Sanduaren laudarioetan*. Titulu honetan adierazten digunez, Lizarragaren lehenbiziko asmoa aldareko sakramentuaren laudarioetan gozatzea da. Baina bazter batean agertzen digu baita ere beste helburu historiko bat, Independentziako gerrategi artean jasan zituen nahigabeak arintzea alegia. Hitz hauekin adierazten digu: *Eguinac guerra dembóran etsaien ertéan, naigabeen eta tristuren arintzeo ta ematzeko*. Poema honek zazpiehun eta hogeita bederatzita estrofa ditu, metrika aldetik gaztelaniazko “cuarteta” delakoa eredu dutelarik. Beraz bertso-lerro bakoitzak zortzi silaba ditu eta, ia beti, lehenbizikoa hirugarrenarekin eta bigarrena laugarrenarekin errimadunak. Kopla hauek argitaratu zituen Bonapartek aurreko mendean. Horietaz gainera sakabanaturik azaltzen diren beste eukaristi kopla batzu ere atal honi erantsi dizkiot. Horrela kopla-sail honek hiru mila eta seihun bertso-lerro inguru ditu denetara.

### 4. Copla-guisa batzuc Doctrina Christioaren

Laugarren atala kristau doctrinari dagokiona da eta egilearen titulu hau darama: *Copla-guisa batzuc Doctrina Christioaren*. Kopla hauetan esplikatzen ditu Trentoko Cateximaren lau zatiak: Kredo, Mandamentuak, Sakramentuak eta Otoitza. Sakelarako dirudien liburutxo batean aurkitzen da kopla-zerrenda hau eta, metrika aldetik, oso desberdina da. Izan ere ez bertso-lerroen zenbaki aldetik, ezta ere errima aldetik egileak ez du eredu mugaturik edo finkaturik erabiltzen. Mila eta hirurehun bertso-lerro inguru ditu denetara atal honek.

Bukatu baino lehen esan nahi nizueke, beste ekarpen edo aportazio bikain bat ere egin digula Lizarragak, bere itzulpen-lana, alegia. Latinezko goratzarre ezagun batzuren itzulpenak utzi dizkigu bere eskuiskribuetako bazterretan sakabanatuak. Horrela “Pange lingua” eta “Sacris solemniis” hiru aldiz eta “Dies irae” eta “Magnificat” bi aldiz itzultzen ditu. Nahiz berdintsuak izan beren artean itzulpen hauek, ba dituzte zenbait aldaera ere; eta azterketa konparatibo baterako interesgarriak izango dira noski. Utzi dizkigu baita ere testu bibliko franko bidenabar euskaratuak eta, bitxi bakar bat bezala, sanda Teresaren poema baten itzulpen ederra. Gaien egokitasunari begiratu, lehen aipatutako ataletan sartu ditut itzulpen batzu, osagarri bezala; eta beste batzu bukaeran ezarri ditut gehigarri bezala.

Lan hau prestatzerakoan, nahita alde egin dut edozein balioztapenetik, hizkuntzaritzako edo literatur balioztapenetik. Azterketa hau egitea beharrezkoa da, noski. Baina besterentzat utzi dut eginkizun hori, horretarako trebe

direnentzat, alegia. Nola nahi dela, aldez aurretik esan dezakegu, desberdintasun nahiko nabari dela kopla batzu eta besteren artean, kalitate edo nolakotasun aldetik. Edozein balioztapen egiterakoan ez da ahaztu beharko bestalde, herri-poeta baten aurrean gaudela. Nire helburu soil soil hainbeste koplen bilketa egitea izan da eta ia ia bi mendez gehienbat ezkututa zegoen materiale bikain hau argitara ematea.

Oraindik erabaki gabe dago noren bidez argitaratu edo inprimatuko den. Nola nahi dela, norbaitek argitaratuko ahal du lehenbailehen, edo Euskaltzaindiak edo “Principe de Vianak” edo biok elkaturik.